

**EBAZPENA**, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak emana. Haren bidez, 2026ko “Santander Bekak | Excelencia 360º” programaren baitan beka bat emateko deialdia egiten da Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleentzat, eta baimena ematen da horretarako gastua egiteko.

2024ko uztailaren 3an, Nafarroako Unibertsitate Publikoak lankidetzaz hitzarmen orokor bat sinatu zuen Banco Santander SArekin, eta, haren bidez, Unibertsitateak beka batekin hartzen du parte “Santander Bekak | Excelencia 360º” programan.

2026ko “Santander Bekak | Excelencia 360º” programaren termino eta baldintza orokorren arabera, bi gauza sustatu nahi dira: merezimendu akademikoa eta unibertsitateko bizitzan modu aktiboan parte hartzea.

Ikusirik Zerbitzu Juridikoak eta Ekonomia Gaietarako Zerbitzuak egindako txostenak.

Ikusirik Sarbidearen, Beken eta Tituluen Ataleko buruak egindako txostena.

Aurrekontuan horretarako dirua badela kontuan harturik.

Barne Kontrolerako Zerbitzuak aldeko fiskalizazioa eginda.

Errektoretza-taldearen egitura orokorra eta eginkizunak onesten dituen 2023ko ekainaren 20ko 1306/2023 Ebazpenaren bidez Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak delegatu dizkidan eskudantziak erabiliz –ebazpen hori Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen 2025eko otsailaren 25eko 351/2025 Ebazpenaren, 2025eko maiatzaren 26ko 1026/2025 Ebazpenaren eta 2025eko ekainaren 4ko 1101/2025 Ebazpenaren bidez aldatu zen–,

#### **EBAZTEN DUT:**

Lehenbizikoa.- Deialdia onestea 2026ko “Santander Bekak | Excelencia 360º” programaren baitan beka bat emateko 2025-2026 ikasturtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko graduiko titulu ofizialen batean matrikulatuak dauden ikasleei, baldin eta ebazpen honen eranskinean ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

Bigarrena.- 12.000 euroko gastua baimentzea Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2026ko gastuen aurrekontuko 30.52.00A/0540/480.02 partidaren kargura (“Ikasleen matrikularako beka eta laguntzak”; espediente zenbakia: 2026/0000225).

Hirugarrena.- Ebazpen hau Kontabilitate Atalari eta Barne Kontrolerako Zerbitzuari aditzera ematea.

Laugarrena.- Agindua ematea ebazpen hau eta haren eranskina Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoan argitaratu dadin.

Bosgarrena.- Agindua ematea ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratu dadin.

Seigarrena.- Ebazpen honek administrazio bidea agortzen du, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duenaren arabera, eta haren kontra zilegi da berraztertze errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztea, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenean, biak ere ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Dokumentu hau honako honek sinatu du digitalki:

Begoña Pérez Eransus  
Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko  
errektoreordea

**Eranskina, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak emandako ebazpen batena. Ebazpenaren bidez, 2026ko “Santander Bekak | Excelencia 360º” programaren baitan beka bat emateko deialdia egiten da Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleentzat, eta baimena ematen da horretarako gastua egiteko.**

“Becas Santander | Excelencia 360º” programaren 2026ko deialdiaren barrenean Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleentzat 1 beka emateko deialdiaren oinarriak.

Deialdi hau honako hauetan ezarritakoaren arabera garatzen da: alde batetik, 2026ko “Santander Bekak | Excelencia 360º” programaren termino eta baldintza orokorrak (eranskinean jasoak), eta, bestetik, Nafarroako Unibertsitate Publikoak Banco Santander SArekin sinatutako lankidetzaz hitzarmena, 2024ko uztailaren 3koa.

## **1. oinarria.- Partaideak eta bete beharreko baldintzak**

Programa honen onuradun izaten ahalko dira Nafarroako Unibertsitate Publikoan 2025-2026 ikasturtean graduiko ikasketa ofizialetan matrikulatutako ikasleak, baldin eta honako hiru baldintza hauek betetzen badituzte:

- 1) Unibertsitateko titulazioa lortzeko beharrezkoak diren kredituen % 75 gutxienez gaindituta izatea 2024-2025 ikasturtea amaitzean.
- 2) Espediente akademikoan gutxienez 8,50 puntuko batez besteko nota lortu izana, 3. oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz. 2024-2025 ikasturtera arte lortutako kalifikazioak bakarrik hartuko dira kontuan (ikasturte hori barne).
- 3) Unibertsitate zabalpeneko gutxienez bi jarduera egin izana 2024-2025 ikasturtea amaitu aurretik. Jarduera jakin horiek ebazpen honetan daude jasoak: *2155/2022 Ebazpena, 2022ko azaroaren 3koa, zeinaren bidez eguneratzen baita graduiko ikasleen espedienteetan kredituen balioa aitor dakiekeen unibertsitate zabalpeneko jardueren zerrenda: [https://www2.unavarra.es/gesadi/sede/tablon-electronico/estudiantes/RESOLUCION\\_2155\\_2022\\_ACTI\\_EXTENSION\\_UNIVERSITARIA.pdf](https://www2.unavarra.es/gesadi/sede/tablon-electronico/estudiantes/RESOLUCION_2155_2022_ACTI_EXTENSION_UNIVERSITARIA.pdf) Ebazpen horretan akatsak atzeman ziren, eta 2024ko irailaren 18ko 2186/2024 Ebazpenaren bidez zuzendu ziren ([https://www2.unavarra.es/gesadi/sede/tablon-electronico/estudiantes/resoluc\\_2186\\_2024.pdf](https://www2.unavarra.es/gesadi/sede/tablon-electronico/estudiantes/resoluc_2186_2024.pdf)).*

Ikasketa ofizialen programa bateratuetan (gradu bikoitzak) matrikulatutako ikasleen kasuan, batez besteko notaren eta kredituen portzentajea kalkulatzeko, ikasketa bateratuen programaren barnean gainditutako kreditu guztien gainean egingen da kalkulua, eta ez programa osatzen duten titulazio bakoitzean gainditutakoen gainean.

## **2. oinarria.- Bekaren zenbatekoa.**

Bekaren zenbatekoa 12.000 eurokoa da, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren 2026ko gastuen aurrekontuko 30.52.00A/0540/480.02 partidaren kargura finantzatuko da (“Ikasleen matrikularako beka eta laguntzak”; espediente zenbakia: 2026/0000225).

Programaren xede den beka jasotzea bateragarria izanen da programa honen xede den bekaren izaera bereko edo desberdineko beste laguntza-mota batzuk jasotzearekin, laguntza horien jatorria edozein dela ere (publikoa edo pribatua).

### 3. oinarria.- Batez besteko notaren kalkulua.

1. oinarrian aipatzen den batez besteko nota kalkulatzeko, espedientean agertzen diren 2024-2025 ikasturtean gainditutako azken zenbakizko kalifikazio guztiak hartuko dira kontuan (ikasturte hori barne), 2003ko irailaren 5eko 1125/2003 Errege Dekretuaren 5. artikulua ezartzen duenari jarraikiz (dekretu horrek *kredituen sistema europarra eta Espainiako lurralde osoan ofizialak eta baliodunak diren unibertsitateko titulazioetako kalifikazio sistema arautzen du*). Egindako kalkuluaren emaitza hiru zifra dezimalekin adieraziko da, eta milaren hurbilenarekin biribilduko da; distantziakidea bada, goiko milarenarekin.

Ikasketa ofizialen baterako programetan matrikulatutako ikasleen kasuan, programa horretan egindako irakasgaietako azken zenbakizko kalifikazioekin egingen da kalkulua.

### 4. oinarria.- Beka emateko irizpideak.

Beka honako irizpide hauen arabera emanen da:

1) Kontuan hartuko da ikasle batek eginak dituen unibertsitate zabalpeneko jarduerak zer taldetakoak diren (jarduerak 1. oinarrian daude jasoak): zenbat eta talde gehiagotako jarduerak izan, orduan eta lehentasun handiagoa emanen zaio beka esleitzeko. Jarduera horiek 2155/2022 Ebazpenaren eranskinean daude jasoak, eta talde hauetakoak izaten ahal dira:

880 - Kultura-jarduerak

881 - Kirol jarduerak

882 - Ikasleen ordezkartzako jarduerak

883 - Elkartasun jarduerak eta gizarte erantzukizuneko jarduerak

884 - Garapenerako unibertsitate lankidetzako jarduerak

885 - Hizkuntzen ikaskuntza Hizkuntzen Goi Mailako Ikastegian

886 - Baimendutako beste jarduera batzuk

Eskatzaileek jarduera bakoitza zein talderi dagokion identifikatzen ahalko dute jarduera bakoitzaren kodearen lehen hiru digituen bidez. Kode hori bat dator taldeen zerrenda horretako zazpi kodeetako batekin. Kode horiek espedientearen web kontsultan daude kontsultatzeko, hain zuzen, "Nire irizpideak" atalean →, "Aitorpenak eta transferentziak" dioen tokian.

2) Talde kopuruan berdinketa badago, 1. oinarriko unibertsitate zabalpeneko jarduera gehien egin dituenari emanen zaio beka.

3) Jardueren kopuruan berdinketa badago, 1. oinarriko unibertsitate zabalpeneko jardueretan kreditu gehien egin dituenari emanen zaio beka.

- 4) Kredituen kopuruan berdinketa badago, batez besteko nota hoberena duenari emanen zaio beka, formula honen arabera:

$$\frac{Ne^2}{Np}$$

*Ne* zera da: ikaslearen batez besteko nota, 3. oinarrian xedatutakoaren arabera kalkulatua.

*Np* zera da: titulazio bereko edo ikasketa bateratuen programa bereko ikasle guztien batez besteko nota, 3. oinarrian xedatutakoaren arabera kalkulatua.

- 5) Kalkulu horren araberako notan berdinketa badago, ohorezko matrikula gehien dituenari emanen zaio beka, edo, bestela, bikain gehien dituenari, eta horrela hurrenez hurren.

### **5. oinarria.- Eskaerak aurkezteko forma eta epea.**

Bekarako eskaera aurkezteko, ezinbestekoa izanen da programan izena ematea horretarako sortutako web-esteka honetan:

<https://www.santanderopenacademy.com/>

Izena ematen duten ikasleak identifikatzeko zailtasunak saihesteko, garrantzitsua da izena ematen duten unean NUPeko kudeaketa akademikoko sisteman identifikatzeko dauden datu pertsonal berberak erabili ditzatela ikasleek (izen-abizenak, NANA, AIZa, pasaporteak).

Eskabideak aurretik aipatutako estekaren bidez emanen dira, eta horiek aurkezteko epea deialdi hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki ohol elektronikoa argitaratu eta biharamunean hasi, eta 2026ko maiatzaren 7an bukatuko da.

### **6. oinarria.- Bekaduna Hautatzeko Batzordea.**

Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta bekaduna proposatzeko, batzorde bat eratuko da, eta honako hauek osatuko dute:

- a) Batzordeburua: Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordea
- b) Batzordekidea: Ikasleen Arloko zuzendaria
- c) Idazkaria: Sarbidearen, Beken eta Tituluen Ataleko burua.

### **7. oinarria.- Behin-behineko argitalpena, erreklamazio epea eta behin betiko ebazpena.**

Bekaduna Hautatzeko Batzordeak esleituko ditu bekak, deialdi honen 4. oinarrian ezarritako irizpideak aplikatuz. Horretarako, Batzordeak zilegi izanen du beka eskaerak ebazteko behar dituen dokumentuak eskatzea.

2026ko maiatzaren 19ko 14:00ak baino lehenago argitaratuko da aukeratutako ikasleen behin-behineko zerrenda, 4. oinarrian adierazitako irizpideen arabera ordenatua. Halaber, zerrendan adieraziko da zer eskaeratarako proposatzen den ezezkoa ematea.

Erreklamazioak aurkezten ahalko dira behin-behineko zerrendaren aurka, 2026ko maiatzaren 20tik 26ra bitartean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko erregistro elektronikoen bidez ([https://sedeelectronica.unavarra.es/oficina/tramites/acceso.do?id=8256&blockType=AREA\\_S\\_SEDE&entity=1096](https://sedeelectronica.unavarra.es/oficina/tramites/acceso.do?id=8256&blockType=AREA_S_SEDE&entity=1096)). Bekaduna Hautatzeko Batzordeak erreklamazioak aztertu eta behin betiko proposamena egingen du.

Ikasleen Gaietarako, Unibertsitateko Bizitzako eta Konpromiso Sozialeko errektoreordeak ebazpen baten bidez onetsiko du bekaren esleipena, Bekaduna Hautatzeko Batzordearen behin betiko proposamena ikusirik. Beka esleitzeko ebazpena Unibertsitateko iragarki ohol elektronikoa argitaratuko da, betiere 2026ko ekainaren 10eko 14:00ak baino lehen, eta Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren 38.4 artikulua xedatzen duen arabera, ebazpen honek administrazio bidea agortzen du. Horrela, zilegi da berraztertze errekurtsoa jartzea, errektoreari zuzendua, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, hilabeteko epean lehenbiziko kasuan, eta bi hilabeteko epean bigarrenean, biak ere ebazpena NUPen iragarki ohol elektronikoa argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita.

#### **8. oinarria.- Bekaren onarpena eta ordainketa.**

Ikasleak espresuki onartu behar du esleitutako dirulaguntza 2026ko ekainaren 17tik 23ra, Banco Santanderren webgunean horretarako prestatutako sistemaren bidez (<https://www.santanderopenacademy.com/es/index.html>).

Nafarroako Unibertsitate Publikoak 2026ko uztailan ordainduko dio onuradunari beka.

Onuradunak ez badu oinarri honetan bertan adierazitako web estekaren bidez beka espresuki onartzen, Unibertsitateak jarraian datorren pertsonari esleituko dio beka, esleipen ebazpenean ezarritako ordenari jarraituz, norbaitek onartzen duen arte. Beka ikasle bati esleitzen zaionean, ikasle horrek zazpi egun naturaleko epea izanen du beka onartzeko, eta onarpena Banco Santanderren web esteka honen bidez egin beharko du:

<https://www.santanderopenacademy.com>

#### **9. oinarria.- Datu pertsonalen babesa.**

Deialdi honetan parte-hartzeak berekin dakar datu pertsonalen tratamendua araudi hauen arabera izan behar da: Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 EB Erregelamendua –2016ko apirilaren 27koa, Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen

(DBEO)–; eta, bestetik, 3/2018 Lege Organikoa –2018ko abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide digitalak Bermatzeari buruzkoa (DBEDBLO)–.

NUPEk hautatuko du bekaduna, eta entitate hori izanen da hautagaien datu pertsonalen tratamenduaren arduraduna (haien nortasuna, harremanetarako datuak, profil akademikoa eta kalifikazio akademikoa, baita aurretik esleitutako beka ere).

Bekaduna hautatzea eta haren datuak Banco Santanderri jakinaraztea bikaintasun akademikoaren sustapenean eta unibertsitateko ikasleentzako laguntza sozioekonomikoan oinarritutako datu-tratamenduak dira. Xede horiek interes publikoko oinarri juridikoarekin identifikatzen dira, zeinak Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren arabera datu pertsonalen tratamendua zilegitzen baitu. Halaber, NUPEko ikasleek beren unibertsitateko matrikulan izenpetutako pribatutasun klausulari egin behar zaio aipamena, zeinak datuen lagapenen “hartzaitzat” hartzen baititu “banku-erakunde laguntzaileak”.

Eskatzaileek beka eskatzeko eta NUPEk hautatutako ikasleak beka onartzeko prozesuak Banco Santanderren webgunearen bidez egiten dira (<https://www.santanderopenacademy.com>). Eskariari eta onarpenari buruzko datuak tratatzeko eragiketa horiek guztiak Banco Santanderren erantzukizunpean geratzen dira.

Informaziorako eskubideaz eta bestelako eskubideez baliatu nahi izanez gero datuak babesteko araudiaren arabera, jarri harremanetan datuen babeserako NUPEko delegatuarekin (delegado.protecciondatos@unavarra.es).

Uste baduzu zuk egindako kontsultari ez zaiola behar bezalako erantzuna eman, zilegi duzu erreklamazioa aurkeztea Datuak Babesteko Espainiar Agentzian: <https://www.aepd.es/es>

## **10. oinarria.- Argitalpena.**

Deialdi honetako oinarriak Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratuko dira.

## **11. oinarria.- Errekurtsoak.**

Deialdi honek eta dirulaguntza emateko behin betiko ebazpenak administrazio bidea agortzen dute, Unibertsitate Sistemari buruzko 2023ko martxoaren 22ko 2/2023 Lege Organikoaren (LOSU) 38.4 artikulua ezartzen duen moduan. Hori dela-eta, 39/2015 Legeak –2015eko urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa– 112. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin arabera, zilegi da honako errekurtsok hauek jartzea dirulaguntza emateko prozedura honen eta dirulaguntza emateko behin betiko ebazpenaren aurka:

- Aukerako berraztertze errekurtsok, errektoreari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita; eta dirulaguntzak emateko ebazpenaren aurka, behin betiko ebazpena

Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan argitaratzen den egunetik kontaktzen hasita.

- Administrazioarekiko auzi errekurtsua, Iruñeko Auzialdiko Auzitegiko maila bereko atalari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik kontaktzen hasita; eta dirulaguntzak emateko ebazpenaren aurka, behin betiko ebazpena Unibertsitatearen iragarki ohol elektronikoan argitaratzen den egunetik kontaktzen hasita.

upna

Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa



## **ERANSKINA**

**Zehaztapenak eta baldintza orokorrak.  
2026ko "Santander Bekak | Excelencia 360º" programa**

**ANEXO II**  
**Términos y Condiciones Generales**  
**Programa “Becas Santander | Excelencia 360° 2026”**

**I. Entidades convocantes**

**Banco Santander, S.A.**, con CIF A-39000013, domicilio a estos efectos en calle Juan Ignacio Luca de Tena 11-13, 28027, Madrid, y con correo electrónico [becasantander@gruposantander.es](mailto:becasantander@gruposantander.es), en lo sucesivo “**Santander**”, promueve el programa “**Becas Santander | Excelencia 360° 2026**” (en adelante “el **Programa**”).

**II. Objetivos**

En virtud del Programa se promoverá el mérito académico y la participación activa en la vida universitaria de los estudiantes matriculados en un grado en las universidades españolas que tengan convenio con Santander o con Fundación Banco Santander (en adelante, la/s “**Universidad/es**”).

En concreto, se promoverá que hasta un máximo de 77 estudiantes universitarios reciban una ayuda económica en reconocimiento a su excelencia académica y a su formación integral durante el curso en el que esté matriculado en el momento de la adjudicación de las ayudas (en adelante, la/s “**Beca/s**”).

**III. Universidades participantes**

Santander hará extensiva la participación en el Programa a las Universidades, con arreglo al cupo de Becas asignadas a cada una de ellas por Santander.

La participación queda supeditada a la aceptación expresa de las bases legales por parte de cada una de las Universidades para su adhesión, lo que implicará su toma de razón, conocimiento y aceptación de los presentes términos y condiciones generales del Programa, lo cual tendrá la consideración de acuerdo de colaboración entre las Universidades y Santander. Todo ello, a través de la herramienta de Santander en la página web [www.santanderopenacademy.com](http://www.santanderopenacademy.com) (en adelante, la “**Plataforma**”).

Corresponde a cada una de las Universidades la gestión, resolución y adjudicación de las Becas que les sean asignadas, respetando en todo caso los términos y condiciones recogidos en el presente documento y siendo responsables de coordinar y gestionar los procedimientos internos para su adecuado funcionamiento.

El proceso de inscripción en el Programa, la gestión de candidaturas y la selección de los participantes beneficiarios se llevará a cabo a través de la Plataforma.

**IV. Destinatarios**

Tendrán la condición de candidatos y, por tanto, podrán optar a ser beneficiarios de este Programa los estudiantes universitarios matriculados en un grado en una Universidad, con

expediente académico excelente y que hayan participado significativamente en la vida universitaria de la Institución (en adelante, el/los "Candidato/s"). A estos efectos se considerará como expediente académico excelente aquél en el que la nota media del estudiante sea igual o superior a 8,5 sobre 10.

A tal efecto, la Universidad podrá tener en cuenta aportaciones significativas a nivel social, cultural o deportivo y/ o haber participado en programas tales como:

1. realización de prácticas en empresas (según el número de horas de prácticas realizadas en empresas)
2. desarrollo de habilidades profesionales y/o emprendedoras (en función del número de horas dedicadas a formación complementaria)
3. proyección internacional del currículum vitae (se considera el conocimiento de idiomas y la participación en programas de intercambio)
4. implicación y preocupación social, colaboración con ONG, tutor asesor de estudiantes o delegado de estudiantes.

Adicionalmente, las Universidades podrán tener en cuenta otros criterios de superación personal derivados de situaciones adversas sobrevenidas o relacionadas con discapacidad acreditada superior al 33% o necesidades educativas especiales debidamente acreditadas.

No podrán optar a esta Beca aquellos estudiantes que hayan sido beneficiarios de la misma en ediciones anteriores del Programa.

La Universidad se responsabilizará de la verificación del cumplimiento de los requisitos que deban cumplir los estudiantes a partir de los datos de carácter personal del solicitante de la Beca de los que se dispone en las bases de datos de la propia Universidad.

En el supuesto de que la Universidad tuviera que recabar datos de carácter personal especialmente sensibles de los Candidatos, incluyendo cualquier certificado o documentación que estime la Universidad como necesarios, lo hará de acuerdo con la normativa aplicable en materia de protección de datos de carácter personal vigente en cada momento..

La Universidad no facilitará en ningún caso datos de carácter personal sensibles de los candidatos a Santander ni a ninguna de sus filiales.

## V. Contenido de las Becas

A la presente convocatoria 2026, se destinará hasta un importe máximo total de **NOVECIENTOS VEINTICUATRO MIL EUROS (924.000€), distribuido en 77 becas de 12.000 euros**, una beca por cada Universidad, de conformidad con lo dispuesto a continuación.

Esta aportación se financiará con cargo a los convenios generales de colaboración firmados entre Santander o Fundación Banco Santander y cada una de las Universidades que se encuentren en vigor en la fecha de publicación del Programa. El referido importe tiene la

naturaleza prevista en el art. 25 de la Ley 49/2002, de 23 de diciembre, de Régimen Fiscal de las Entidades sin Fines Lucrativos y de los incentivos Fiscales de Mecenazgo y habrá de ser destinado íntegramente a este Programa.

En virtud de la normativa aplicable, las Universidades están obligadas a difundir la participación de Santander en este Programa de conformidad con lo dispuesto en el apartado "Difusión y publicidad", todo ello en virtud de su adhesión al Programa a través de la Plataforma, que tendrá el valor de acuerdo de colaboración entre las Universidades y Santander.

En todo caso, el importe unitario de la Beca que recibirá cada uno de los estudiantes será el mismo en todas las Universidades, que por el mero hecho de participar asumen este compromiso de forma expresa.

La percepción de la Beca objeto del Programa será compatible con la de otro tipo de ayudas de carácter asistencial de naturaleza igual o distinta a las Becas que son objeto de este Programa, cualquiera que sea su origen (público o privado), a las que pueda acceder el estudiante que realice la práctica al amparo del mismo.

## **VI. Gestión del Programa**

### Inscripción

Será condición ineludible para ser beneficiario de las Becas estar inscrito en el Programa a través de Plataforma, preferiblemente con el correo electrónico universitario de cada Candidato. La notificación de la concesión de la Beca será a través del sistema de gestión habilitado a las Universidades en dicha Plataforma.

**La inscripción de los estudiantes deberá realizarse entre el 3 de febrero de 2026 y el 7 de mayo de 2026.**

La Universidad podrá establecer requisitos adicionales y seguir los procedimientos de gestión habituales en la convocatoria interna que realicen para el desarrollo y ejecución del Programa, según su propia normativa interna y políticas de otorgamiento de becas, siempre que los mismos no contravengan lo establecido en los presentes términos y condiciones generales.

A la finalización del Programa, se podrá organizar un evento para la presentación de resultados del mismo, coordinado por Santander, en calidad de empresa impulsora del Programa, quien podrá ponerse en contacto con los beneficiarios del Programa a través de cualquier medio, incluida la vía electrónica, para su organización.

### Asignación de Becas entre los Candidatos

Serán las Universidades quienes determinen la lista de Candidatos a quienes se les asignan las Becas (los "**Beneficiarios**"). En todo caso, las Universidades seleccionarán a los Beneficiarios atendiendo a su excelencia académica y a su formación integral de acuerdo con lo previsto en el apartado IV anterior. Este requisito podrá ser ponderado en cada Universidad según el área de conocimiento u otros elementos internos a decidir por la misma.

Adicionalmente, las Universidades podrán tener en cuenta otros criterios de superación personal derivados de situaciones adversas sobrevenidas o relacionadas con discapacidad acreditada superior al 33% o necesidades educativas especiales debidamente acreditadas.

No obstante lo anterior, las Universidades, además del criterio previsto en el apartado anterior de la presente cláusula, podrán tener en cuenta otros criterios que consideren oportunos para la asignación de las Becas, siempre y cuando no afecten al criterio establecido en la presente convocatoria, siendo su responsabilidad determinar y verificar el efectivo cumplimiento de los mismos, así como seguir los procedimientos de gestión habituales en la convocatoria interna que realicen para el desarrollo y ejecución del Programa, según su propia normativa interna y políticas de otorgamiento de becas.

**El plazo de asignación de las Becas por parte de las Universidades terminará el 16 de junio de 2026.** Tal asignación se comunicará a los Beneficiarios, quienes dispondrán de 7 días naturales para cursar su aceptación, todo ello a través de la Plataforma.

Las Universidades abonarán el importe de la Beca mediante ingreso en una cuenta abierta a nombre del Beneficiario. Con el fin de promover la inclusión financiera, Banco Santander incorpora en su oferta comercial una cuenta corriente gratuita, de cuyas condiciones se informaría, tras la inscripción en el Programa, a aquellos beneficiarios que así lo hubieran consentido en la Plataforma.

**El 31 de diciembre de 2026** (en adelante, el "Plazo") **se dará por cerrado el Programa.**

Al término del Plazo, las Universidades deberán haber asignado todas las Becas, habiendo recurrido al procedimiento de reasignación a otros estudiantes mencionado anteriormente para asegurar que no queden plazas desiertas.

Las fechas previstas en la presente cláusula podrán ser modificadas en sede de las correspondientes bases legales a criterio de Santander y serán, en todo caso, publicadas en la Plataforma.

## **VII. Difusión y publicidad**

Las Universidades se comprometen a asegurar una adecuada difusión y promoción del Programa en sus respectivas comunidades universitarias identificando en todo caso y de forma clara la Plataforma.

Las Universidades harán mención expresa, adicionalmente, a la denominación "Becas Santander | Excelencia 360º- 2026" e incluirán el logotipo de Santander en la documentación y soportes que elaboren en relación con el Programa.

## **VIII. Fiscalidad del Programa**

A las Becas se les aplicará la normativa tributaria correspondiente vigente en cada momento y, en concreto, lo dispuesto en materia del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y que en ocasiones podría dar lugar a la práctica de retenciones a cuenta del mencionado Impuesto por parte de las Instituciones y al nacimiento de la obligación para el Beneficiario de la Beca de incluir en su declaración de renta anual las cantidades que correspondan (el

cumplimiento de las obligaciones fiscales del Beneficiario de la Beca será de su exclusiva responsabilidad).

#### **IX. Protección de datos**

La política de protección de datos aplicable a esta convocatoria se recoge en el documento de Declaración de Privacidad publicado en la Plataforma junto a estas Bases Legales.

#### **X. Seguimiento**

Una vez finalizado el Programa y la asignación de las correspondientes Becas por parte de las Universidades, éstas identificarán a través de la Plataforma, mediante la funcionalidad establecida para tal efecto, tanto a los Beneficiarios como a aquellos a los que no se hubieran adjudicado las Becas. Santander, como convocante del Programa, podrá acceder a esta información.

Tanto durante la realización del Programa como una vez finalizado, las Universidades facilitarán a Santander, a través de la Plataforma, información detallada de las mismas, así como cualquier otra información relativa al Programa y a su ejecución que sea requerida por cualquiera de éstos para su debido seguimiento.

Las Universidades se encargarán de realizar un seguimiento efectivo del Programa, de acuerdo con sus procedimientos habituales, y de elaborar un documento con la información de seguimiento que Santander, pueda requerir a la finalización de la convocatoria.

#### **XI. Aceptación y Modificación**

El hecho de concurrir a la presente convocatoria del Programa supone la aceptación por los Candidatos de sus bases.

Banco Santander se reserva el derecho de interpretar las presentes bases. Asimismo, se reserva el derecho de modificar o rectificar cualesquiera de los términos y condiciones de la convocatoria del Programa, parcial o totalmente en cualquier momento, pudiendo incluso suspender, posponer o cancelar la misma, atendiendo a una causa objetiva y debidamente justificada, y con la finalidad de preservar el impacto social que persigue con la presente convocatoria, informando acerca de las modificaciones introducidas a los Candidatos a través de la Plataforma.

#### **XII. Legislación Aplicable**

El Programa, las presentes bases, las adhesiones de las Universidades y, en general, su desarrollo y ejecución se somete a la legislación española.